

## Iragarki laburrak

**E**uskararen onerako egin beharreko liburu hura, Itxaro, zure aurreko Ttakunean aipatzen duzuna, alegia, azken hogeita hamar urteetan onartezina onarrarazteko euskarak nola aldatu, eufemizatu, metaforizatu duen –eta, gehitzea zilegi bazait, nola duen bere burua inmolatu– ikertuko lukeen liburua idazteko ardura nori esleitu, eta lagun hura nola aurkitu, pentsatzen ari nintzelarik gogoratu zaizkit aspaldi irakurritako iragarki miragarri batzuk, egunkarian paratzen dituzten horien gisakoak; guk bilatutakoa ere bitxi xamarra gerta daitekeenez, eredutzat har bai-kenitzake, erredaktatzerakoan. Baina, gertatu ohi denez, direlako iragarki horiek, nahikoa poetikoak eta nahikoa umoretsuak gogoratzen ditudanak, zein liburutan irakurri ditudan ezin lokalizatuz ibili naiz luzaro, apaletik apalera, amore emateraino ia. Castillo Suarezek badu poema liburu bat iragarkiz osatua, baina ez, ez dira horiek. Rossettiren obsesioak hartu nau, jakinda ez nuela aurrera egiterik haiek topatu arte edo memoriaren leizetik haiek nolabait berreskuratu arte.

Sisiforen harkaitz bat salgai, urtetsua, ongi leundua, eramangarria, urteek eta mendeek limatua, infernuko harkaitz hutsa. Aspertu eta etsituendako, absurdoaren zaleendako edo kulturista metafisikoendako. Lumazko kuxin bat, sorbaldarako, doanik.

Saltzen dut bigarren eskuko uhartea. Ni arduratu ezinik. Egoera bikaina: hareak eta senaiak, uhinak, itsaslabarrak, zuhaiztiak, izurdeak. Amets instalazioa ia perfektua.

Edaloren zezen bat salgai. Diskrezioa. Hamabost egun, proba frenetikorako. Etxera bertara banatuko da. Zulo mota guztietara moldagarria.

Birsaltzen ditut labirinto erabiliak, nahasbide handikoak. Zazpi edo zortzi urtetarako galera erabatekoa ziurtatzen da. Ez bazara pozik



gelditzen, Ariadnaren hariaren prezioa itzuliko dizugu.

Ikaroren hegalk alokairuan, moldaerrazak, malguak. Behar-beharrezkoa: suizida ikastaroa, ameslari masterra edo alde zurretik apurtutako curriculum.

Zorionez azkenean topatu ditut iragarkiok –ez dira nik gogoratu bezalakoak–, arratsalde osoa horretan eman badut

ere eta artikulu honen entrega berandutu badut ere, eta buruan neukan gaia alferrik galdu –zertaz behar nuen nik hitz egin?–. Nolabaiteko barne euforia batek goiti beheiti dardarazita nago. Egun hauetan orriotara hainbestetan ekarri ditugun latindarrek esaniko adagioa egiazkoa da, alajaina: bakea nonahi bilatu dut eta liburu batekin nire baztertxoan baino ez dut kausitu. Gizalegeak eta aipatzaile onaren deontologiak orain aginduko lidakete nire peskizuetan sujeta nork idatzia den esatea, baina ez dizuet, tupustean, gutxien espero duzuen liburu batean zuek zeuek aurkitzearen zioritasuna –bakea– ebatsi nahi, Babelgo bibliotekaren neurrirako balentria honek, dena den, hilezkortasuna eskatuko lukeen arren.

Erosten dut hilezkortasun jainkozkoa, sasoi onean eta gutxi erabilia, argitsua. Hegoaldera begirakoa bada, hobe. Munduko liburu guztiak, disko guztiak eta gorputz guztiak irakurtzeko, aditzeko eta estutzeko. Momentuan bizitzera sartzeko. Fede dogmatikorik ez. Kontratu mefistofelikorik gabe.

Salerosketa hitzartu bitartean, Babelen gida turistiko gisara, Pierre Bayard-en liburu bat eskuratu berri dut: “Nola mintzatu irakurri ez ditugun liburuez?”. David Lodgeren nobela batean jolas lotsagarri bati ekiten diote literatur mundukoak diren pertsonaiek. Aitortu behar dute zer liburu esentzial ez duten irakurri. Edo –ez naiz oroitzen, liburua ez baitut leitu– argumentua eraldatuta, huts egindako klasikoak hobetu. Inazio, jolastu nahi duzu? ■

David Lodgeren nobela batean jolas lotsagarri bati ekiten diote literatur mundukoak diren pertsonaiek. Aitortu behar dute zer liburu esentzial ez duten irakurri. Edo –ez naiz oroitzen, liburua ez baitut leitu– argumentua eraldatuta, huts egindako klasikoak hobetu.

Inazio, jolastu nahi duzu?